



❖ ELKARTASUNA Hernaniko argazkiak salgai, Wukro Elkarteari laguntzeko

Hernaniko argazkiak jarri dituzte salgai Irizar eta Zinkoeneako tabernetan. Lehenengo eta oraingo argazkiak dira, eta kostua, 30 eurokoa bakoitza. Jasotako dirua Wukro Elkarteari laguntzeko izango da. ||

❖ KIROLDEGIA Igeriketa ikastaroan izen ematea, bihar arte

Kiroldegian igeriketan hasi edo dakiten gutxia praktikan jarri nahi dutenek aukera dute abuztuan. Hastapeneko ikastaroak antolatu dituzte, ume zein helduentzat. Izena emateko epea, bihar arte. ||

❖ DAITEKE Abuztuan, itxita

Abuztuko opor garaia dela eta, Daiteke enplegu gunea itxita egongo da hil osoan. ||

❖ AHT Bizikleta martxa Hernanira iritsiko da asteartean

Abiadura Haundiko Trenaren kontra bizikleta martxa hasiko da gaur. Altsasutik Donostiarako bidea egingo dute, sei egunetan. Hernanitik asteartean pasako dira. 11:15ak aldera iritsiko dira Plaza Berrira. Ondoren, Osiñagarako bidea hartuko dute eta bertan «AHTak bailaran egindako kalteak» aztertuko dituzte. ||

GAUR KRONIKAN

Errugbia - Ohorezko Maila
Denboraldi hasiera / 2

Erremontea -
Kutxa Sariako Prebia / 2

Jasota Bezala / 2



Euskera ikasleek bota dute aurten txupinazoa Astigarragan, ume, gazte eta helduak begira zituztela.

«Santio festetan ere, disfrutatu euskeraz»

EUSKERAKO ikasleek abiarazi zituzten atzo, Santio festak Astigarragan. Kanpotik Astigarragara bizitzera etorriak, seiak emakumeak, Udalaren aitortza jaso zuten atzo, eukera ikasteko egiten ari diren saiakeragatik. Esker hitzak izan zituzten balkoietik, eta oraindik pausua eman ez duten herritarrak animatu zituzten, euskera ikastera. Eta dakitenei, festetan ere, euskeraz dantzatu, jolastu, ligatu eta disfrutatzeko eskatu zieten. Aranon bihar hasiko dira Santioak, eguerdiko 12:00etan; Lehenengo aldiz Zomorroz jantzi ziren emakumeek botako dute, suziria. /4-6



Murgil gaitezen festa giroan! Falta direnak gogoratu, ONDO PASA!

ASTIGARRAGAKO UDALA





Hernanik 31-47 galdu zuen joan den denboraldian, Landaren, Valladolideko 'Quesos' taldearen aurka

ERRUGBIA - OHOREZKO MAILA

Valladoliden kontra hasiko du Liga Hernanik, etxetik kanpo

Irailaren 15ean jokatuko du aurreneko partidua, Valladoliden zelaian. Landaren ligako bigarren partidua jokatuko du, Santboianaren aurka.

OHOREZKO Mailan jokatuko du Hernanik, bigarren urtez, irailetik aurrera. 2013-2014ko denboraldiko egutegia plazaratu dute, eta Hernanik badaki, noiz eta zeinen kontra neurtuko dituen indarrak, mailari eusteko bidean.

Aurreneko partidua, etxetik kanpo

Joan den urtean bezala, aurten ere, etxetik kanpo jokatzea egokitu zaio Hernaniri, ligako aurreneko partidua. Aurkaria gainera, ez du nolanahikoa izango: Valladolid RAC, Ohorezko Mailako talde onena 2012-2013 denboraldian.

Santboiana, etxean estreinatzeko

Landaren estreinekoz irailaren 22an jokatuko dute hirukoloreek. Kasu honetan ere, beste haundi baten kontra: Santboiana. Liga indartsu hasi nahi du Hernanik, aurrean dituen aurkari haundien kontra duten maila erakutsi, eta aurreneko puntuak lortuz.

Hernanik liga hasi eta berehala jokatuko ditu bi derbyak: Ordiziaren kontra etxetik kanpo, irailaren 29an; eta Gernikaren kontra, Landaren, urriaren 6an.

Bi derbiak, jarraian

Eta Valladolid eta Santboianaren kontra ligan aterrizatu eta gero, bi derbiak jarraian izango ditu Hernanik. Aurrenekoa Ordiziaren kontra, irailaren 29an, etxetik kanpo. Eta bigarrena, Gernikaren kontra, urriaren 6an; bigarren hau, Landaren.

Liga maiatzera bitartean

Irailaren 15ean jokatuko da 2013-2014 denboraldiko aurreneko partidua; eta lehenengo buelta, joaneko, abenduaren 15a arte luzatuko da. Buelto lehenengo partidua Gabonen aurretik jokatuko dute, abenduaren 22an; eta ligako azkena, maiatzaren 4an. ||

2013-2014 DENBORALDIA

2013-09-15 // 2014-12/22
Valladolid RAC-Hernani CRE
2013-09-22 // 2014-01-26
Hernani CRE-UE Santboiana
2013-09-29 // 2014-02-02
Ordizia RE-Hernani CRE
2013-10-06 // 2014-02-16
Hernani CRE-Gernika RC
2013-10-20 // 2014-03-09
Independiente-Hernani CRE
2013-10-27 // 2014-03-16
Hernani CRE-CR El Salvador
2013-11-03 // 2014-03-23
Ciencias RC-Hernani CRE
2013-11-10 // 2014-03-30
Hernani CRE- CRC Madrid
2013-11-24 // 2014-04-06
Hernani CRE-CR Cisneros
2013-12-01 // 2014-04-13
Getxo RT-Hernani CRE
2013-12-15 // 2014-05-04
Hernani CRE-Vigo RC

*Fetxak joan-etorriko partiduetakoak dira.
**Partiduen ordena, joaneko partiduetakoa da.

ERREMONTA - KUTXA SARIKO PREBIA

Bi espezialista aurrez aurre: Etxeberria IV eta Urtasun

- Sakea klabea izango da, biak aurrelariak baitira.
- Astearteko partiduan, Endika nagusitu zen 20-30 Matxin VIaren kontra.

KUTXA Sariko Prebiako beste partidua batetaz disfrutatzeke aukera izango dute gaur, Galarretara gerturatzen diren pelotazaleek. Goi mailako bi aurrelarik neurtuko dituzte indarrak: Etxeberria IVak eta Urtasunek. Sakea izango da partiduko klabea; eta partidua hasieran tokatzen zaionak, erdi lanak eginak izango ditu. Urtasunek bikain hasi zuen Txapelketa eta Etxeberria IVak asko hobetu du, azkeneko partiduetan. Gaur 30 puntuetara aurrea iristen denak, pausu handia emango du Kutxa Saria jokatzeke bidean.

Txapelketako partidua arratsaldeko 16:00etan hasiko

den jaialdiko azkena izango da. Aurretik, hirugarren partiduan, Barrenetxea IVak jokatuko du, Ezkurrarekin batera, Juaristi eta Etxeberria IIIaren kontra. Beste bi partidua, hauek: Ezkurra II-Saldias/Segurola-Zubiri eta Urriza-Agirrezabala/Matxin III-San Miguel.

Endikak Juaristi du zain

Matxin VIari 20-30 irabazi eta Kutxa Prebia Sariko azken txanpara pasa da Endika. Faborito garbia zen astearteko partiduan, eta hala erakutsi zuen, aurreneko tantuetatik. Orain beste haundi bat du zain, hurrengo kanporaketa jokatzeke: Juaristi. ||

MODELO DESFILEA CHILLIDA-LEKUN



Hamasei gaztek graduazio desfilea izan zuten, Chillida-Lekun. Amalia de Gonzalo hernaniarraren KoöKoö modelo agentzian ikasi duten hamasei gaztek desfilea zuten hila-bete hasieran Chillida Leku museoan. Kurtsoa bukatu berri dute eta desfilea errematea izan zen, graduazio desfilea. Ion Fiz, Ivan Camana eta Iraia Oartzabalen jantziekin desfilea zuten, gerturatu ziren dozenaka moda-zaleen artean. ||

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

JESUSA URANGA AZPIAZU

(PEDRO ZUGASTIREN ALARGUNA)

Hernegun hil zen Hernanin, 95 urte zituela

- Goian Bego -

Ahizpa: Juana (Irastorzaren alarguna); ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideek.

Gonbidatzen zaituzte GAUR, OSTEGUNA, arratsaldeko ZAZ-PIETAN, Urrietako SALON DEL REINO DE LOS TESTIGOS CRISTIANOS DE JEHOVAN (Estacion kalea, 3-5 behe) egingo den hileta hitzaldira.



Hernanin, 2013ko uztailearen 25ean

Helbidea: Santa Barbara, 89 - 1. Esk.

UDAN ERE, HERNANI O ZABOR HERRIA!

Uda iritsi da!

Hernanin leku zoragarriak dauzkagu jolastu, naturaz gozatu eta beroari aurre egiteko.



Leku zoragarriak, zoragarri mantentzea, denon ardura da!

HONDAKINAK BEREIZI, SAILKATU ETA BEHAR DEN LEKUAN



Eman hartu nahi dugun Hernani!



ASTIGARRAGA - SANTIO FESTAK UZTAILAREN 24TIK 28RA

Festa giroa nonahi gaur, Santio Egunez

Suziriak lehertu zuen festa atzo Astigarragan. Bost egunez, igandera bitartean, egunero izango dira bazkari, musika ekitaldi, ume joko eta bestelakoak. Gaur dute festetako egun haundietako bat; bestea bihar, Santa Ana.

KANPOTIK etorri eta euskeratik ikasten hasi diren astigarrarrek izan zuten atzo, aitortza. Astigarragako festetako txupinazoa bota zuten, omenaldi txiki gisa. Festak arratsaldeko 19:00 hasi ziren, eta bost egunez, jai eta algara izango da nagusi, kaleetan.


Guztientzako festak

Santio Eguna da gaur, egun haundia eta astigarrar guztiek izango dute goizetik gauera, zerekin gozatu. Festak eguna 07:00etan hasiko da aulki jokoarekin. Goizeko aurreneko orduan dianak girotuko dute. Handik aurrera, txikientzako ekin-tzak izango dira: txirindularitza proba, haurrentzako jokoak eta sokamuturra. Alkate eta zinegotzien soka dantza eguerdian izango da aurten, 12:30etan. Arratsaldean Pasai txarangak girotuko ditu kaleak; Astigar dantza taldeak erakustaldia egingo du; eta barre egin nahi duenak, Barry Manleyekin izango du aukera. Musika Trovahavana, Mandolin eta Gau kubatarrek jarriko du. Eta gauerdian aurretik, Larrain dantza an-

Asteburu eta jai bezperetan gerturatzen da inguruko herrietako jende gehien Astigarragara.

tolatu dute, Foru Plazatik.

Baserritarren eguna, bihar Santa Ana egunean bertako eta inguruko herrietako asko animatzen dira, herri kirolak ikustera. 09:30etan hasiko da erakustaldia Foru Plazan: idiak pisatu; sagardoa dastatu; dema Izeta, Irarreta eta Olasagastiren artean; Mendiluze eta Zeberio bertotan... Eguerdian indarrak berreskuratzeko aukera jarri dute bazkariarekin; eta arratsaldean, koadrilen arteko herriko jaialdia izango da, Foru Plazan, baita ere. Eguna bukatzeko, trikitilariak, Laiotz, Aborto Fallido, Anboters eta Txema taldeek jarriko dute musika. Eta sabeleko kontuekin jarraitu nahi duenarentzat, hegaluze pintxoak eta Gernikako piperrak izango dira aukeran. Presoak ere, gogoan izango dituzte,



Geroz eta gehiago dira txupinazoa bertatik bertara bizi izaten dutenak.

Santa Ana egunez: 20:00etan, hileko azken ostiraleko agerraldia antolatu dute.

Azken bi egunak, asteburu Festetako azken bi egunak asteburu tokatu dira aurten. Larunbata umeentzako ekin-

tzeekin hasiko da, eta iluntzera bitartean izango da zerekin disfrutatu. Eguerdian aipatzekoa, gazte bazkaria. Iluntzean, musika berriz ere, protagonista: dantza, txarankutada, kontzertuak txosnan...

Erraldoi eta buruhaundien konpartsarekin hasiko da

igandea. Eguerdia betizu jateak markatuko du. Arratsaldean bi ikuskizun: pala erakustaldia batetik, eta ile apainketa artistikoa bestetik. Eguna eta festak bukatzeko su kalejira egingo du Piratas de Malpika taldeak; eta Film laburren lehiaketa ere izango

UZTAILAK 25- Gaur

07:00 Aulki jokoa eta txokolate jatea Foru plazan
09:30 Txistularien diana
10:30 Haurrentzako VI Txirindularitza proba
11:00 Meza Nagusia Santio Mendiko ermitan
11:30 Haurrentzako jokoak
12:30 Udalbatzaren soka dantza Foru Plazan
13:00 Elegancia Mexicana mariatxiak Foru Plazan
17:00 Sokamuturra txikia Foru Plazan
17:00 Pasai txaranga
18:00 Astigar taldearen Dantza Erakustaldia, pelotalekuan
19:30 Umorezko bakarriketa Barry Manleyekin, txosnan.
19:30 Trovahavana talde kubatarra, Barandiaran Plazan.
23:45 Larrain Dantza, Foru

Plazatik.

00:15 Mandoilek taldea Barandiaran Plazan
00:15 Gau kubatarra txosnan

UZTAILAK 26 - SANTA ANA

09:30 Zubietako joaldunak
09:30 Estanga trikitilariak
Foru plazan:
09:30 Idiak pisatzea
11:30 Gozogintzako azoka
11:30 Sagardo dastaketa
11:30 Idi dema: Aiako Izeta, Errenteriako Irarreta eta Igeldoko Olasagasti, 1.700kg-ko harriarekin
12:00 Bertsolariak: Aitor Mendiluze eta Xabier Zeberio
14:30 Bazkaria sagardotegian. Txartelak, Zipotza tabernan.
18:00 Herri Kirol jaialdia Foru Plazan

18:30 On egin Mon Amour ikuskizuna Apeztegi Plazan.
19:30 Trikitilariak.
20:00 Laiotz taldea Barandiaran Plazan.
20:00 Hegaluze pintxoak eta Gernikako piperrak parrillan.
20:00 Hileko azken ostiraleko kartel agerraldia.
23:30 Laiotz Barandiaran plazan
00:00 Aborto Fallido, Anboters eta txema taldeak txosnan

UZTAILAK 27 - Larunbata

10:00 Iker Ruizen oroimenezko XIII 3x3 Saskibaloitxapelketa.
12:00 Paintball gunea eta Kinekt pantailak Erribera plazan
12:00 Haurrentzako puzgarri eta tailerrak, Foru Plazan
14:30 Gazte Bazkaria
16:00 Paintball eta Kinekt

pantailak Erribera plazan
16:00 Haurrentzako puzgarriak eta tailerrak
17:00 Bingoa Galtzaur elkartean
18:00 Apar festa Foru Plazan
18:30 Sagarri Show fanfarrea
19:00 Eriz Mangoa Norberto Almandoz Plazan
23:00 Errimak oinetan Haatik dantza konpainiaren ikuskizuna pelotalekuan.
23:30 Testing, drogei buruzko informazioa eta analisi gunea Tomas Alba kalean.
00:00 Txarantukada
00:00 Sorpresa, Eutsi eta Joxe Replay taldeak, txosnan

UZTAILAK 28 - Igandea

12:00 Astigarragako eta Irrintzi konpartsako erraldoiak eta buruhaundiak

Hernaniko dultzaineroek lagunduta, Foru Plazatik.
13:00 Betizu pintxoak Foru Plazan.
14:30 Betizu jatea Foru Plazan. Txartelak, Ikatzan.
17:00 Pala erakustaldia urritasun fisikoa duten kirolarien eskutik. Ondoren, J.L. Berakoetxearen oroimenezko IX Esku Pelota jaialdia
18:00 Sienta la cabeza ile apainketa artistikoa musikaren eritmoarekin, parte hartzaile ausartenentzat. Barandiaran plazan.
23:00 Piratas de Malpika su kalejira Kale Nagusia-Galtzaur elkargunetik abiatuta.
00:00 Astigarragako II. Film laburren lehiaketa. Proiektzioa eta sariak banatzea txosnan, Gazte Asanbladak antolatuta

AEKKO IKASLE ATZERRITARREK BOTA ZUTEN ATZO, TXUPINAZOA

«Benetan integratu nahi izanak eraman gaitu euskera ikastera»

Jaioterria utzi eta Astigarragara bizitzera etorri ziren atzo suzeria bota zuten sei emakumeak. Guztiek eman dute, euskera ikasteko pausua. Arrazoiak asko dira, baina oinarria, integrazioa, euskalduna sentitzea.

EUSKERA ikasteko saiakera egiten duten guztiei merezi duten lekua eman nahi die Astigarragako Udalak. Santio festetan, protagonismo berezia izango dute aurten, bereziki, kanpotik Astigarragara bizitzera etorri diren emakume euskaldunberriek. Aitortza jaso zuten atzo Sandra Cuervo (Kolonia), Pepa Caballero (Kordoba), Karmele Aznar (Venezuela), Mari Karmen Mira (Salamanka), Claudia I. Zapata G. (Mexiko) eta Isabel B. Jofrék (Argentina), euskera ikasteko ahalegina egiten duten beste asko eta askoren izenean.

Esker hitzak eta euskera ikasteko animoak

Santio festak abiarazi zituzten txupinazoa bota zuten sei emakumeek. Esker hitzak eta euskera ikasteko animoak entzun ziren atzo, Udaleko balkoitik. Bakoitzak, banaka, sentit-



Pepa, Claudia, Isabel eta Karmele, suzeria botako duten seitik lau.

zen zuena esateko aukera izan zuen: «Astigarragar bat gehiago sentitzen naiz egin didazuen harreragatik; Argentinakoa naiz, eta urtebete daramat euskera ikasten, zaila da, baina ikastera animatzen zaituztet; Salamankakoa naiz, eta euskeraz bizi nahi dut; Kolonbiatik etorri nintzen eta euskal kultura gustuko dut; Santio jaiak ondo pasa, euskeraz abestu, dantzatu, ligatu, gozatu... euskeraz bizi!; euskera ikastearekin batera herriaren parte izatea lortu dut».

Aitortzak, ilusio handia
Suziriak eztanda egin aurretik Kronikarekin bildu ziren sei emakumeetako lau. Txupinazoa botako zutenaren notizia ez zuten

inondik inora espero, eta hasiera batean, ezetza eman zuenik ere izan zen: «hasieran ezetz esan nuen, izugarrizko poza nuen, baina lotsa ere bai. Gerora, beste kideekin hitz eginda, pausua ematea erabaki nuen, momentua aprobetxatu eta eman didaten aukera eskertu behar nuela erabaki nuen. Gainera, familiari ere ilusio handia egin dio» zioen Claudia mexikarrak.

Egiten ari diren lana saritu dela zioten lauek: «gu saiatzen ari gara, baina lerro hauen bidez, irakasleen meritua ere azpimarratu nahi dugu». Kordobako Pepak hala zioen: «Kanpotik etorri gara Astigarragara bizitzera, eta halako aitortzak erakusten du kontuan hartzen gaituztela gu eta

egiten ari garena».

Hasi berriak

Ez dira urte asko euskera ikasten hasi zirela, baina gustura dira ematen ari diren pausuekin. Kordobako Peparen esanetan, herri berri batean integratzeko, astigarrara sentitzeko, bertako hizkuntza ikastea ezinbestekoa da: «betidanik entzun izan dugu zaila dela, baina ez da ezinezkoa, eta ez saiatzeagatik ez dadila izan behintzat!».

Mexikotik etorri den Klaudiari ume txiki bat izateak ere motibatu dio euskera ikastera: «senarra euskalduna dut, Astigarragakoa. Semearekin euskeraz egiten du eta nik ere, egin nahi dut. Berarekin batera ikasten dut, garrantzitsua iruditzen zait».

Argentinatik etorritako Isabel euskaldun giroan bizi da, erabat. Baserrian bizi da, eta denek, ume eta helduek, euskeraz egiten diotela dio: «ulertu guztia ulertzen dut baina hitz egin... hori kostatzen da egiten zait. Askok laguntzen didate, umeek, amaginarrebak... eta irakurri ere, euskeraz irakurtzen dut zerbait, egunero. Taberna batean egiten dut lan, eta bezeroek badakite ikasten ari naizela, eta beraien aportazio txikia egiten dute, laguntzeko; pozik nago lortzen ari naizena».

Astigarragan, gustura

Astigarragan pozik eta gustura sentitzen direla diote denek: «berri ere herria aukeratu beharko bagenu, Astigarraga izango litzateke

EZPELA
NATUR
DENDA

Terapia naturalak
elikadura biologikoa
kosmetika, garbitzaileak
oinetakoak, liburuak...

Kontsultak

eta on-line zerbitzual

www.ezpelabelardenda.com
info@ezpelabelardenda.com

Ondo pasa Santio Jalak!

Nagusia, 9
Tel.: 943 33 11 47
20115 Astigarraga

COVIRAN
Janari denda

Santio jai zoriontsuak
opa dirizkizuegu!

Tomas Alba 11 - Astigarraga
Tel.: 943 55 23 67

ETXE
TRESNAK **Amegar** ACTIVA

ETXEKO
ELEKTROGAILUAK,
TELEBISTAK ...

SUKALDEKO
ALTZARIAK

NEURRIAN
EGINDAKO
HORMA-ARMAIRUAK

Txirrita kalea 13-15 Telf: 943 551 125 Faxa: 943 551 603

ARANO - SANTIO FESTAK UZTAILAREN 25ETIK 28RA

Ume jokoak eta kirola, festetaz gozatzeko hasteko

Gaur jokatu da aranoar eta goizuetarren arteko pelota partidua; eta herri kirolak eta iparraldeko jokoak ere, izango dira. Bihar, San Joakin eta Santa Ana egunez, jubilatuen bazkaria, azoka eta bertsolariak nagusi. Larunbatean arkume jateak eta bertsolariek jarriko dute saltsa. Eta igandean, umeak protagonista

SANTIO egunarekin hasiko dira aurten, izen bera duten festak, Aranon. Lau eguneko jaiak antolatu dituzte eta ohi bezala, denek dute lekua: kirolak, bertsoak, musikak dantzak, sabel kontuek, umeak...

Txupinazoa, 'Zomorro' gisa atera ziren aurreneko emakumeek

Aurten emakumeek izango dute festak abiarazteko ardura. Baina ez edozein emakume. Aranoko inauteriek duten berezitasunetako bat dira Zomorroak. Urtero ateratzen dira, baserriz baserri, puxka biltzen. Tradizioz, gizonak izan ohi ziren beti, Zomorroak. Azken urteetan ordea, emakumeek leku bera dute hain egun berezian. Zomorro gisa atera ziren aurreneko emakume haiek botako dute gaur, 12:00etan, Aranoko txupinazoa. Eta handik aurrera, festa giroa nagusi, lau egunetan.

Aranoar eta Goizuetarrek urteroko pikea jokatu dute, esku pelotan. Aranoarren ordezkari, Huizi eta Lizeaga izango dira aurten; eta Goizuetak Apezetxea eta Zabaletan jarri du konfiantza osoa; 12:30etan hasita. Arratsaldean ere, kirolek hasiko da. Aizkoran, Nazabal eta Azurmendi ariko dira. Eta ondoren, nobedade gisa, Iparraldeko jokoak antolatu dituzte.

Iluntzea Tapia eta Leturiaren trikiti doinuek



Sagardo eta produktu probaketa eta artisau azoka bihar izango dira, Aranon

girotuko dute. Eta afaldu ere, elkarrekin egingo dute Santio egunean, aranoarrak. Bakoitzak etxetik otordua ekarri, eta giro ederrean jango dute. Ordu berean, umeentzako zinea jarriko dute, ilargipean.

Bihar, bigarren egun handia

San Joakin eta Santa Ana eguna ospatuko dituzte bihar, festen barruan. Mezarekin hasiko dute eguna, eta ondoren, hamaiketakoak dute. Bazkalarretik afizionatu mailako pelota partidua jokatu dute Esnal eta Urruzolak. Egun hau berezia izaten da Aranoko jubilatuentzat, urteroko bazkaria izaten baitute. Aurten, Unai Agirre eta Xabier Legarreta ariko dira bertsotan, bazkalordua girotzen.

Arratsaldean artisau azoka jarriko dute, bertako eta ingurukoak erakarri ohi dituena. Eta ondoren, torti-

lla lehiaketa eta sagardo probaketa; bertako sagardoarekin, noski! Eguna bukatzeko, Mus Txapelketa jokatu dute, San Roke Elkartearen.

Arkume jatea larunbatean, bigarren urtez

Goizean goizetik jarriko dute arkumea erretzen, Plazan. Joan den urteko arrakasta eta gero, bigarren edizioa antolatu dute aurten. Berriz ere, produktu guztiak autoktonoak izango dira, aranoarrak. Txartelak alde aurretik erosi behar dira: Hernanin, Deportibon; Ereñotzun, Irrintzin; Goizuetan, Amaia Kafetegian; Aranon, Kontzejuan; Herreran, Zumardin; eta Urnietan, Kantoién.

Arratsaldean goi mailako bertsolariak izango dira; orain punta-puntan, taulaz taula dabilzanak batzuk; eta izen haundikoak besteak: Sebastian

Lizaso, Iker Zubeldia, Julio Soto eta Aitor Mendiluze. Saioa 19:00etan hasiko da. Eta eguna bukatzeko, musikarekin jarraituko dute; oso bestelakoa ordea: Elepunto DJ-ak egingo du, aukeraketa.

Umeen eguna, azkena

Umeek egunero izango dute zerekin ondo pasa, baina eurentzako antolatutako egun propioa badute: azkenekoa. Mezarekin hasiko da festa. 10:30etan, etorkizuneko pelota desafioak jokatu dituzten pelotari gazteak dute zita, umeen partiduan: Mujika eta Apezetxeak, Altsua eta Apezetxearen kontra. Segidan, Arano eta Goizuetako dantzariak emango dute, espektakulua.

Bazkalostean puzgarriak eta ume jolasak antolatu dituzte. Txokolatada ere izango dute merienda-tzeko. Eta festak eta eguna agurtzeko, Arno ganadute-

UZTAILAK 25- SANTIO

11:00 Meza
12:00 Jaien hasiera
Umeentzat bonba japonesak eta buru haundiak
12:30 Arano-Goizueta arteko pelota partidua
18:00 Herri kirolak.
Aizkoran: Azurmendi eta Nazabal. Iparraldeko jokoak.
20:00 Tapia eta Leturiarekin lagun arteko triki festa
22:00 Afaria elkarrekin
22:00 Ilargipeko zinea umeentzat

UZTAILAK 26 -

SANTA ANA ETA SAN JOAKIN

11:00 Meza
Ondoren Hamaiketakoak
13:00 Pelota partiduak afizionatu artean
14:00 Jubilatuen bazkaria Unai Agirre eta Xabier Legarreta bertsolariekin
18:00 Artisau azoka karpan
19:00 Tortilla txapelketa eta herriko sargardo eta produktu probaketa
22:00 XXXI. Mus txapelketa San Roke elkartearen

UZTAILAK 27 - LARUNBATA

14:00 Arkume jatea
Bazkalondoren Kantu saioa fanfarrearekin
19:00 Bertsolariak: Sebastian Lizaso, Iker Zubeldia, Julio Soto eta Aitor Mendiluze.
Afalostean Dantzaldia Elepunto Djarekin

UZTAILAK 28 -

UMEEN EGUNA

10:00 Meza
10:30 Umeen partidua
Segidan Arano eta Goizuetako dantzariak
15:30 Puzgarriak eta ume jolasak
19:00 Arno ganadute-giko azienda umeentzat.



Santio jai zoriontsuak opa dizkizuegu aranoar eta bixitari guztiei. Ondo pasa!



AURRENEKO EMAKUME ZOMORROEK TXUPINAZOA - BEGOÑA, MAITE, MILAGROS ETA AURORA:

«Polita izan da hainbeste urte eta gero, normaltasunera nola iritsi garen

36 urte inguru pasa dira, aurreneko aldiz, emakume eta gizonak atera zirela Zomorro jantziz. Aurten aitortza jaso dute orduko emakume haiek berdintasunaren alde egindako lanagatik. Atzo festetako txupinazoa bota zuten.



Begoña, Maite, Milagros eta Aurora

EMAKUME euskaldunek nortasun faltik ez dutela erakutsi izan dute beti, eta horren beste adibidetako bat dira Begoña, Maite, Milagros eta Aurora aranoarrak. Inauterietan Zomorroak puxka biltzen noiztik ateratzen diren jakitea ez da erraza; baina bai, emakumeak noiztik ateratzen dira. Orain 36 urte inguru atera ziren aurreneko aldiz, emakume eta gizonetzkoak, Zomorro jantziz. Hasierako pausu hori eman zuten lau protagonista hauekin elkartu da Kronika. Gaur Aranoko festetako txupinazoa botako dute, berdintasunaren alde egindako lanagatik.

Ilusioarekin jaso dute txupinazoa botako dutenaren notizia: «sorpresa ona izan da eta notizi pozgarria ere bai. Gutaz gogoratu dira, eta horrek ilusioa egiten du»

Ordutik, normaltasun batean

Tradizioz, gizonetzkoak bakarrik ateratzen ziren inauterietan, puxka biltzera. Aurorak, ondo gogoratzen du, emakumeak hasi zireneko garai hura: «mutil gazte asko falta ziren, 4-5 soldaduskan egotea nahikoa zen, Zomorroen parte-hartzea zalantzan jartzeko. Nik esan nien, aterako nintzela, eta hala gehiago apuntatu ziren». Maite ere, gazte-gazte hasi zen, 15 urterekin: «ni ateratzen hasi nintzenez ez zen mutil faltik, ni atera egingo naiz esan nien, eta atera egin nintzen!». Ordutik, Zomorro jantziz nahi zuen guztiak izan zuen ateratzeko aukera, emakumea izan edo gizona izan: «polita izan da hainbeste urte eta gero, normaltasunera nola iritsi garen ikustea»

Buelta, baseriz baserri

Urteak pasa dira, baina ibilbideak bera jarraitzen du izaten. Aranoko inauterietan, larunbatarekin ateratzen dira Zomorroak. 08:00-etan abiatzen dira, eta bailaraz bailara, baserri joaten dira. Garai batean, puxka biltzen joaten ziren; puxka deitzen zioten ematen zieten txerriki, arrautza, txistorra eta abarri. Orain ere puxka biltzera joaten dira, baina dirua jasotzen dute; eta jasotakoarekin, bukatutakoan, bazkaria egiten dute soziedadean.

Tradizioz, ezkondu bitartean ateratzen ziren gizon eta emakumeak, Zomorro jantziz. Orain hori ere, aldatu dela diote: «urte guzti hauek eta gero, gu berriz animatu gara ateratzera; orain seme-alabak, bilobak... elkarrekin ateratzen



Orain 30 urte inguruko argazkia, emakumeak ateratzen hasi ziren aurreneko urte haietakoak.

gara, ederra da benetan».

Jantzi zuria, zintekin

Ibilbidea ez da aldatu ez den bakarra. Jantzia ere, garai bateko bera da: alkandora txuria, galtza txuriak bordatu eta guzti, eta zintak zin-

tzilik. Momenturen batean, galtza txuri eta jertse gorriarekin ateratzen hasi zirela gogoan dute, «baina Aranotxa eta Ainhoa garai bateko paperak atera zituzten, jantzien ingurukoak, eta ordutik, *arrajatabla* jantzita

KONZEJU OSTATUA

IMANOL - AINHOA

Asteazkenetik - Igandera
(Santio jaietan egutero zabalik)

BAZKARIAK, BOKADILLOAK, RAZIOAK, PINTXOAK
- KARTA -

ZATOZ ARANORA ETA GOZA ITZAZU SANTIO JAIK!!!

948 514 279

ARANO - NAFARRA

MARISCOS
HERNANI

609 67 43 44
943 55 51 56

Mariskoan espezialistak

KALE NAGUSIA, 20
30120 HERNANI
GIPUZKOA

tripontzi
taberna

PINTXOAK
RAZIOAK
ENTSELAKDEK

BOBXTAL
PLATER
BONBINATUAK

ZATOZ
DASTATZERA

Kardaberaz kalea, 11 • HERNANI
943 555 924

LARBA

24h
SERBIZIOAK

615 763 435

Insektu-garbiketa
Arratoi-garbiketa
Hegaztien kontrola
Desinfektazioa
Egur tratamenduak:
Pipi, Termita eta Si isaren kontra

Étxeberria Auzoa 2. 1º Lokala HERNANI
Diruzikako Tel. 943 357 722
info@larba.com.es www.larba.com.es

TELEFONDAK ● Taxiak: 943 550093 ● Udaltzaingoa: 092 ● DYA: 943 464622
● Autobusak: Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
● Anbulatorioa: 943 006666 - 943 203020 ● Jokalari anonimoak: 943 331103 ● Alkoholiko anonimoak: 943 331103
FARMAZIAK ● Egumez: Etxebeste Elkano 2 - 943 552087 ● Gauez: Aldabe Perkaiztegi 8 (Antziola) - 943 336022

EGURALDIA ● GAUR Lainotuta hasiko du eguna eta bukatu ere halatsu egiteko itxura dauka. Tartean, ordea, eguzkiak gogor joko du eguerdi-arratsalde partean. Min.20° / Max.28°
● BIHAR Bero, bihar ere, aurreko egunetan baino beroago. Eguzki zakarra izango dugu eguerdi-arratsaldean; goizean laino eta iluntzean ekaitz arriskua, laino. Min.20° / Max.29° (euskalet)

SANTA BARBARA - SAN INAZIO EGUNA UZTAILAREN 31N

Santa Barbara gaina jendez beteko da asteartean, San Inazio egunez

Hernani eta inguruko jende askok ohitura izaten du urtero San Inazio eguna ospatzeko, Santa Barbarara igota. Urteroko festa dute aurten ere: trikitixa eta bertsoa, meza, herri kirolak, toka, haur jolasak, erromeria...

«SANTA Barbarara igo eta, begiratu Hernaniri», dio Joxe Mari Arrieta bertsolariaren bertso baten hasierak. Hernaniar askok egingo dute horixe, datorren asteartean, San Inazio egunarekin. Eguraldiak oker haundirik ez badu, eta ona dago emana, jendez beteko da Santa Barbarako gaina; batzuk mezataria igoko dira ermitaraino; beste batzuk urrutia egiteko begiratu diote tontorrari, trago bat lasai hartuz. Trikitixa eta bertsoak lagun izango dituzte, ezta herri kirolak faltako, eta ezta urteroko herri bazkaria ere, edo koadrilen arteko toka txapelketa...

Egun pasa, itzalean edo eguzkitan

Era guztietako planak egiten ditu jendeak San Inazio egunean, Santa Barbaran. Lekuak duen gauza ederra da, denentzako aukera jartzen duena. Oraindik nahikoa eguzki hartu ez duenak ez du zirrikiturik faltako nahi adina hartzeko. Beste batzuen iritziz ordea, itzala da eguzkiaren gauzarik ederrena, eta hori ere topatuko



Santa Barbaran giro ederra izaten dute bazkal garaian ere.

dute Santa Barbaran. Batzuk goiz pasa egin, eta bazkaltzera bueltan etorriko dira; beste batzuk bertan egingo dute bazkaria, beren kaxa, edo aurrez txartela hartuta (Aralar eta Kitto tabernetan daude). Bertan geratzen diren koa-

drilek tokan jokatuko dute, galtzeko bildur haundirik gabe; haurrentzat jokoak eta txokolatada ez da faltako... eta nola ez, erromeriarekin bukatuko dute festa: 17:30etan hasi, eta azkeneko izerdi tantak bota arte ariko dira.

Beti bezala, kotxeentzat bidea itxi egingo dute Elutxeta parean. Hortik gora oinez igo beharko da.

Herri kirolak, gazte eta beterano

Herri Kiroletan iazko bide berari segiko diote, eta lau beterano eta lau gazte ariko dira. Bi taldetan banatu eta lau proba dituzte egin beharrak: aizkoran, lokotxetan, korrika eta motozerrarekin. 12:00etan hasiko da, festetan ikusmin haundiena pizten duen proba. ||

EGITARAUA

- 10:00 Trikitilariak
- 11:30 Meza, bertako ermitan
- 13:00 HERRI KIROLAK: Aizkora, lokotxak, korrika eta motozerra.
A taldea: Aitor Barrenetxea, Juan Esnal, Axel Larrañaga, Garikoitz Arizmendi.
B taldea: Imanol Paolla, Jon Larrañaga Larra, Aiert Paolla, Manex Arizmendi.
- 14:00 Herri bazkaria: marmitakoa, txuleta... txartelak: Aralar, Kitto (25 €)
- 16:30 Lagunarteko Toka Txapelketa
- 16:30 Haur joko eta txokolatada
- 17:30 Erromeria
- 19:00 Herrira jaitsiera

IRAGARKI MERKEAK

- Inbertsio paregabea. Pisu salgai Amaran. 175 m2 trastelekua aparte. 4 gela, egongela handia, 2 komun. Guztiz eraberritua. 465.000€. Deitu: 943 29 18 81 / 658 982 816 (Inm. Mendia)
- Aukera. Pisu salgai Amaran (Azpeitia kalea), 55 m2, 2 gela, egongela, sukalde eta komona. 184.000€. Deitu: 943 29 18 81 / 658 982 816 (Inm. Mendia)
- Pisuak, baserriak, txaletak, nabeak, garajeak behar dira. Edozein zonaldean. Alokairuan edo salmantan. Deitu: 943 29 18 81 / 658 982 816 (Inm. Mendia)
- Baserria salgai Aranon. 3 solairu eta egoera onean. Terreno asko erreka ondoan. Hernanin pisua izanez gero, permuta egiteko aukera. Deitu: 943 29 18 81 / 658 982 816 (Inm. Mendia)
- Akordeioa salgai, Zero Sette markakoa. Deitu: 686 679 075
- ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.
- Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebra, reflexologia, aurikuloterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

ibai mendi ETXE ZATITZ IKUSTERA GURE PROMOTIO GUZTIAK on-line salmentan sartu eta ikusi!

Nafar kalea 23 - 943 33 37 24 - Hernani www.ibaimendi.com

2.MERKEALDIAK

% 30
% 40
% 50

MENDIKO JANTZIAK - MODAKO JANTZIAK (NESKA-MUTILA)
UMEEN JANTZIAK (NESKA-MUTILA) - OINETAKOAK...